

Txostena
Informe

**Abandoko Geltoki Intermodala,
Egitasmoaren Kudeaketa, SAren
txostena**

**Informe de la Sociedad Estación
Intermodal de Abando, Gestión del
Proyecto, SA**

1990-2001



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas



AURKIBIDEA/ÍNDICE

SARRERA.....	4
I. ONDORIOAK.....	5
I.1 Lanaren zabalari mugaketak	5
I.2 Azterketa ekonomikoa.....	5
I.3 Legea betetzea	7
II. GARATUTAKO JARDUERAK	8
II.1 Sozietatea eratu aurretiko jarduerak	8
II.2 Sozietateak gauzatutako jarduerak	9
III. SARRERAK	11
IV. INBERTSIOAK ETA GASTUAK	13
V. SOZIETATEAREN LIKIDAZIOA.....	18
VI. SOZIETATEAREN KONTUAK	19
VI.1 Egoeraren balantzeak	19
VI.2 Eraitzen kontuak.....	20
INTRODUCCIÓN.....	21
I. CONCLUSIONES	22
I.1 Limitación de alcance.....	22
I.2 Análisis económico	22
I.3 Cumplimiento de la legalidad	24
II. ACTIVIDADES DESARROLLADAS	25
II.1 Actuaciones previas a la constitución de la Sociedad.....	25
II.2 Actuaciones llevadas a cabo por la Sociedad.....	26



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III. INGRESOS.....	28
IV. INVERSIONES Y GASTOS.....	30
V. LIQUIDACIÓN DE LA SOCIEDAD	35
VI. CUENTAS DE LA SOCIEDAD.....	36
VI.1 Balances de situación.....	36
VI.2 Cuentas de resultados	37
ALEGACIONES	38

Vitoria-Gasteiz, 2003ko abenduaren 11a
Vitoria-Gasteiz, 11 de diciembre de 2003

SARRERA

Abandoko Geltoki Intermodala, Proiektuaren Kudeaketa, SA –GESPROSA, foru sozietate publikoari buruzko lan hau, gaur egun likidatua dagoena, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren lan programan barne hartu dugu, Eusko Legebiltzarrak hala eskatuta. Gure azterlanaren helburua bikoitza da:

- Sozietatearen jardueraren ekonomia eta kudeaketari buruzko azterlana egitea, iraun duen bitartean egindako kostuak zehaztuz eta Sozietateak kudeatutako fondo publiko guztiak zenbatuz.
- Ondasun eta zerbitzuen kontratazio prozesuetan arautegia bete dela egiaztatzea, publizitate eta lehia printzipioak bete direla egiaztatuz. Langileria hautatzeko prozesuetan berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak aplikatu diren aztertuko dugu.

Geltoki Intermodalaren proiektua hirian sakabanan dauden autobus terminalak biltzeko helburuarekin sortu zen; Abandon kokatzeak beste garraiobide batzuekin intermodalitatea errazagoa egiten zuen: trena, taxia eta metroa.

Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiak hainbat kontratu izenpetu zituen 1985 eta 1987ko urteetan Geltoki Intermodalaren aurreproiektua eta oinarritzko proiektua egiteko. 1990eko maiatzaren 17an, hau da, oinarritzko proiektua amaitu zenez geroztik hiru urte igaroak zirela, Bizkaiko Foru Aldundiak GESPROSA izeneko foru sozietate publikoa sortu zuen, honako helburu soziala zuela: “Bilboko Udalak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak Abandoko Geltoki Intermodala eraikitzeke Proiektua zehaztu, informatu, bideratu, sustatu eta azken batean, proiektua azkentzeko beharrezko diren kudeaketa eta ekintzak bideratzea”. 1993an akziodungora Eusko Jaurlaritza txertatu zen %33,3arekin. 1999ko urriaren 14an, Akziodunen Batzorde nagusiak Sozietatea desegiteko prozesuari ekiteko erabakia hartu zuen, 2001eko urtealdian gauzatu zena.



I. ONDORIOAK

I.1 LANAREN ZABALARI MUGAKETAK

Sozietatea likidatu izanak mugatu egin du hein batean gure azterlana, batik bat, Sozietatearen artxiboen antolamendu eskasagatik eta eskuratutako informazioa alderatzeko solaskiderik ez izateagatik. Honegatik guztiagatik, ezin egiaztatu izan dugu legea bete den 1990 eta 1997 bitartean egindako erosketa eta inbertsioetan, ezta 1999koetan ere. Halaber, ezin berrikusi izan ditugu 1990 eta 1995eko urtealdietan langileak hautatzeko egindako bost prozesuak, kontratazioak berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioei jarraiki egin zirela egiaztatu ahal izateko.

Nolanahi ere, kanpo auditoretzaren urteko txostenek eta Epaitegi honek egindako fiskalizazioari dagozkionek erakutsi dute egoera hau likidazio prozesuan soilik gertatu dela.

I.2 AZTERKETA EKONOMIKOA

Eragindako kostuak eta finantzaketa

1990eko martxoan Garraio Sailak egindako txosten batetik ondorentzen denaren arabera, Sozietatea sortu aurretik Bizkaiko Foru Aldundiak 247 milioi pezetako prestakuntza gastuak egin zituen (1.484 mila euro), batik bat, Geltoki Intermodalaren aurreproiektua eta oinarrizko proiektua egitera zuzenduak (ikus xehekapena II.1ean).

Sozietatearen gastu eta sarrerak 1990ean sortu zenetik, 2001ean likidatu zenera arte, ondoko taulan zehaztu ditugu:

KONTZEPTUA	Milioi pta.	Mila €
INBERTSIOAK:	1.473	8.853
Geltoki Intermodalaren proiektua.....	1.229	7.386
Proiektuaren beste azterlan osagarri batzuk.....	201	1.208
Aretoak, altzariak eta bulegoak egokitzea.....	43	259
GASTU ARRUNTAK:	741	4.453
Langileria (5 lanpostu).....	329	1.977
Aretoak: alokairua.....	93	559
Publizitatea eta propaganda.....	88	529
Bidai eta otordu gastuak	58	349
Apartekoak (BEZ ez kenkaria, nagusiki)	43	259
Segurtasun zerbitzua.....	22	132
Bulegoak konpondu eta mantentzea	18	108
Telefonia, mezularitza eta posta	14	84
Hainbat gastu: ordezkaritza, informatika, etab.	35	210
Beste txikiago batzuk: garbiketa, kitatzailea, lege aholkulariak, bulegoak, aseguruak, banketxeko gastuak, etab.....	41	246
KOSTUAK GUZTIRA	2.214	13.306
BAZKIDEEN EKARPENAK:	2.180	13.102
Bizkaiko Foru Aldundia	1.330	7.993
Eusko Jaurlaritza	850	5.109
INTERESAK ETA BESTELAKO SARRERAK	34	204
SARRERAK GUZTIRA	2.214	13.306

Idazpuru honetako taularen datuak 1999ra arteko urteko txostenak eta 2000 eta 2001eko urteei dagokienez kitatzaileak emandako informazioa abiaburu hartuta eskuratzen dira. Sozietatearen urteko kontuak aditu independenteeek fiskalizatu dituzte eta epaitegi honek fiskalizatu 1999ra arte. Honez gain, lan honen ondorioz likidazio prozesuaren jarduera ekonomikoa fiskalizatu da.

Epaitegiak zera uste du:

- Bizkaiko Foru Aldundiak 1990ean Sozietatea sortu zuen, Administrazio zentralarekin aurrez erabakirik lortu gabe; izan ere, erakunde hau ere Abandoko Geltoki Intermodala proiektuaren garapenak eragiten baitzuen.

Sozietateak kudeaketaren garapenean etengabeko harremanak izan zituen eraginpeko erakunde eta sozietate publikoekin (Administrazio zentrala, autonomikoa eta tokikoa) eta ez zuen proiektuaren bideragarritasunari zegokionez, inongo akordiorik lortu.

- Kostuaren kontzeptu nagusia 1993an agindu zen behin-betiko proiektua da, 1.229 milioi pezetako (7.386 mila euro) azken kostua izan zuena. Oinarrizko proiektuaren exekuzio garapena ez zatekeela agindu behar uste dugu, proiektuaren bideragarritasunaz inongo ziurtasunik ez baitzegoen. Baloraketa hau bera merezi dute 201 milioi pezetan (1.208 mila euro) kontratatutako azterlan osagarriek.

Gainerako inbertsioak, 43 milioi pezetakoak (259 mila euro) eta gastuak, 741 milioi pezetakoak (4.453 mila euro) Sozietatearen sorrerak eragin ditu, bere langileen egitura eta bestelako gastu arruntekin, izan duen 10 urteko jarduera aldi zehar proiektuaren kostuei txertatu zaizkienak. Egitura horren sorrera atzeratu egin behar zatekeen proiektuaren bideragarritasuna ziurtatuagoa eta zehaztuagoa egon arte.

- Abandoko Geltoki Intermodalaren behin-betiko proiektua Bizkaiko Foru Aldundiaren Herrilan eta Garraio Sailean dago jaso, inongo erabilpenik eman ez zaiola, eta etorkizunean ere balizko erabilpenik izango duen ez dakitela.

Honenbestez, Sozietateak aipatutako gastuak finantzatzeko eskuratutako baliabide guztien norakoa, 2.214 milioi pezeta (13.306 mila euro), zeinetatik 2.180 milioi pezeta (13.102 mila euro) publikoak diren, hutsekoa gertatu da txosten hau idatzi dugun datan.



I.3 LEGEA BETETZEA

Erosketak eta inbertsioak

1998ko urtealdian, Epaitegiak aztergai izan duen bakarra arestian aipatutako mugaketen ondorioz, guztira 17 milioi pezeta (102 mila euro) egin zituzten lau kontratazioetatik batean ere ez zirela enpresa publikoei ezargarriak ziren publizitate eta lehia printzipioak gorde azaleratu zen (3410/78 Dekretuaren 2. Xedapen Iragankorra, 13/1995 Legearen 6. Xedapen Gehigarria eta 99/1996 FD).

Honez gain, likidazio prozesuan Akziodunen Batzorde Nagusiak likidatzailea izendatu zuen publizitate eta lehia printzipioak gorde gabe, ordaindutako ordainsariak guztira 7 milioi pezetakoak izan zirela (42 mila euro).

Aurrekontuaren arautegia

1991 eta 1992ko urtealdietan Sozietateak inbertsioetarako aurrekontu izendapenak 8 eta 10 milioi pezetan gainditu zituen (48 eta 60 mila euro), hurrenez hurren, eta 1992 eta 1995eko urtealdietan kanpoko zerbitzuetako gastuetarako egotzitakoak, berriz, 10 eta 21 milioi pezetan (60 eta 126 mila euro) hurrenez hurren, urtealdi bakoitzean indarrean zegoen aurrekontuzko foru arautegia urratuz.



II GARATUTAKO JARDUERAK

II.1 SOZIETATEA ERATU AURRETIKO JARDUERAK

BFAk eskuratutako Geltoki Intermodalaren proiektuari buruzko txosten batean ikusten da, Bilboko Geltoki Intermodala Abandoko RENFEren tren geltokiaren gunean kokatzeko erabakia behin autobus terminal batentzako hainbat eta balizko kokaguneak aztertu ondoren hartu zela eta eraginpeko erakundeen bitartez bakoitzaren abantaila eta desabantailak egiaztatu ondoren (Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko Foru Aldundia eta Bilboko Udala). 1984an gauzatutako azterlan batek Abandoko ingurua bereizi zuen kokagunerik egokien modura, gogokoen ziren bien artetik, Abando eta Garellano, alegia. Erabakiaren baliagarritasuna sendestearren, Bizkaiko Foru Aldundiak, ekimenaren garrantzia eta zailtasuna ikusita, aurreproiektu baten idazketa kostuak ordaintzeko eskaintza egin zuen.

Honela, bada, hainbat gestio burutu ondoren, 1985eko otsailaren 14an, Bizkaiko Foru Aldundiak Stirling, Wilford & Associates-SWA enpresarekin Abandoko Geltoki Intermodalaren Aurreproiektuaren eta Oinarrizko Proiektuaren idazketa kontratatu zuen; honek autobusen terminala, aparkaleku bat eta paketeriarako eraikin bat barne hartzen zituen. Kontratu horretan aldi berean beste aditu batzuk kontratatzea aurreikusi zen, azterlan osagarriak egiteko.

Kontzeptua	Data	__Zenbatekoa__	
		Libera esterlinak	Milioi pezeta
1. Aurreproiektu eta Oinar. Proiekt. kontratua	14.02.85	360.000	79
Jarduera esparrua zabaltzea	29.04.86	270.000	55
Kontratuaren luzapena	24.11.86	45.000	9
2. Injinerutza instalakuntza aholkularitza kontr	27.02.86	324.833	67
3. Garraio injinerutzaren konsultinga		25.000	5
4. Kostuen balioespenaren konsultinga		29.167	6
5. Maketa egitea	3.04.87	23.484	5
6. Lege aholkularitza Londresen	hainbat.86	10.250	2
7. Bestelako gastuak			19
GUZTIRA			247

1986ko apirileko kontratu aldaketaren arrazoia hasiera bateko jarduera esparrua erabilera berrietara zabaltzean dago oinarrizkoa, hala nola, plaza publiko bat, eraikin publikoak, merkataritza zerbitzuak eta geltoki berriak RENFE eta Eusko Trenbideak-entzat; baita, Cantalojasko zubiaren eta inguruaren diseinu berria ere. Agindu zen oinarrizko proiektua 1987ko uztailean osatu zen. Ez dugu beste jarduera batzuen ezagutzarik 1987 eta 1990ean sozietatea sortu zen bitartean.



II.2 SOZIETATEAK GAUZATUTAKO EKINTZAK

1990eko maiatzaren 17an BFAk Abandoko Geltoki Intermodala, Proiektuaren Kudeaketa, SA foru sozietate publikoa sortu zuen. 1993ko martxoan Sozietatearen kapital sozialean Eusko Jaurlaritzak sartu zen partaide, BFARI kapital sozialaren %33,3 egiten duten akzioak balio nominalarekin erosiz.

Sozietateak gauzatutako ekintza nagusiak, Administrazio Kontseiluaren Akta eta urteko Kudeaketa Txostenen bitartez identifikatuak, honako hauek izan dira:

a) Proiektuarekin lotutako ekintzak

- Bizkaiko Foru Aldundiaren agindu bidez gauzatu zen oinarritzko proiektuaren idazketaz geroztik (1987) igaro zen denbora gogoan izanda, Sozietateak 1990eko irailaren 3an DEURBE, SL enpresa kontratatu zuen proiektua berraztertzeko. Azterlanaren ondoren, hainbat gabezia eta arazo azaleratu ziren eta geltokiaren birneurketa proposatu zuten, Bilboko Hiri Antolamenduaren Plan Orokorren aurreikuspenetara egokituz (idazketa fasean zegoena). 1992ko maiatzaren 7ko datarekin kontratu bat izenpetu zen James Stirling, Michael Wilford & Associates, Ltd-rekin Geltoki Intermodalaren antolamendu orokorraren aurretiazko ikerlana idazteko; honela, bada, 1992ko azaroan Geltoki Intermodalaren egitasmoa aurkeztu zen Aurretiazko Azterlan modura.
- 1993ko ekainaren 28an Administrazio Batzordeak Michael Wilford & Partners, Ltd. enpresarekin 1.200 milioi pezetako zenbatekoarekin Geltoki Intermodalaren behin-betiko proiektuaren idazketa kontratatzea erabaki zuen (ikus xehekapena IV. atalean, Inbertsio zmaterialen idazpurua) eta zegokion kontratua urte horretako urrian izenpetu zen.
- 1994ko uztailean aurreproiektua aurkeztu zen eta 1995ean, hainbat azterlan amaitu ondoren, oinarritzko proiektua osatutzat eman zen.
- 1996ko uztailean exekuzio proiektua amaitu eta BFARI, Eusko Jaurlaritzari eta Bilboko Udalarari aurkeztu zitzaizkien. Lan hauekin batera, Sozietateak A.B. Asesores enpresa kontratatu zuen proiektuaren bideragarritasuna zehaztu eta kudeaketa/finantzaketa formulak diseinatzeko, fondo publikoen ekarpena gutxitu eta ekimen pribatuaren aldetik proiektuaren elkarfinantzaketa ahalik eta gehien bideratuko zutenak.

b) Eraginpeko erakundeekin jarduerak

- 1990 eta 1991n, Sozietatea eraginpeko erakundeekin harremanetan jarri zen proiektuarekiko zituzten beharrianak ezagutzeko: RENFE, ET, Autobus Konpainiak, Bilboko Udala, Garraio Partzuergoa, Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundia.
- 1993an Eusko Jaurlaritzak Sozietatera akziodun modura bildu zen.
- 1994 eta 1995ean proiektua idatzi zutenek hainbat harreman mantentzen dituzte aurreko entitateekin proiektuaren garapenerako. Orobat, Bilbao Ría 2000, SA sozietatearekin harremanetan jarri ziren proiektu honen garapen teknikoa sozietate hori egiten ari den beste batzuekin koordinatzeko.

- 1996 eta 1997an Bilbao Ría 2000, SA sozietatearekin bilerak egin ziren erakundearteko erabakietarako plataforma bat eratzearen, behin-betiko proiektua abian nola jarri planifikatzeko.
- 1998an koordinazio batzorde bat osatu zen Sozietatearen eta Sustapen Ministerioaren artean proiektua eta azterketa finantzarioa balio-neurtzeko eta behin-betiko irtenbideak emateko Ministerioaren trenbide beharrezaneiei, Intermodala abiadura handiko trenarekin uztartzeari eta autopistarekiko errepide loturei. Honez gain, 1998ko kudeaketa txostenean 1999rako oinarrizko helburutzat hartzen da Estatuko Administrazioarekin akordioa lortzea.
- 1999an eraginpeko aldeekin harremanak mantentzen dira inongo erabakirik hartu gabe. Bizkaiko Batzar Nagusietarako hauteskunderen ondorioz, gobernu atalak berritu ondoren, Akziodunen Batzorde Nagusi berriak Sozietatea likidatzeko prozesuari ekitea erabaki zuen, honen xede soziala amaitua zegoela eta. 1999ko abenduan, Batzorde Nagusiak Sozietatea desegitea eta kitzatzailea izenpetzea erabaki zuen, bere egitekoak 2001eko azaroan amaitu zituela.

c) Geroko egintzak

1999ko abenduaren 10ean egin zen Administrazio Kontseiluak erabaki zuen proiektuaren norakoa Bilbao Ría 2000, SAk izan behar zuela (Bilboko Udalak, foru eta autonomia administrazioek eta RENFE eta ETK, besteak beste, partaidetua), nor bere etorkizuneko jardueretan susta zezan. Akziodunen Batzorde Nagusiak, 2000ko maiatzaren 25ean bildurik, erabaki zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren Garraio Sailera Sozietatearen higiezinu ezmaterial eta material guztia eskualdatzea. Aktiboak eskualdatzeko eragiketaren zenbatekoa zero pezetakoa da eta Aldundia horien gordailuzain bihurtu zen proiektua garatzeko beharrezko erabakiak lortu arte. Txosten hau idatzi dugun datan aktiboak Aldundian gordailatuak daude.



III SARRERAK

Sozietatea finantzatu da Bizkaiko Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzaren erakunde-kideek egin dituzten ekarpen jarraituekin, ondoko taulan agerian dagoen moduan:

		Miloi pta.
KONTZEPTUA		Zenbatekoa
BFA eta Eusko Jaurlaritzaren ekarpenak		2.180
Kapital soziala		60
Galerak konpentsatzeko ekarpenak		521
Likidazio itzulketa 2001eko azaroa		(13)
Kapital dirulaguntzak.....		1.408
Ustiaketa dirulaguntzak		204
Bestelako sarrerak		34
Interesak		30
Beste batzuk.....		4
GUZTIRA		2.214

Eragiketa arruntak ustiaketa dirulaguntzekin finantzatu ziren 1995era arte; ordutik aurrera, berriz, galerak konpentsatzeko ekarpen moldea hartu zuten, egoera balantzearen berezko baliabideen idazpuruan erregistratuz.


Ondotik, ekarpenek denboran izan duten banaketa jaso dugu kapital eta galeren konpentsazio kontzeptuan, eta kapital eta ustiaketa dirulaguntzena:

Urtea	Ekarpenak				Dirulaguntzak				GUZTIRA
	Kapitala		Galeren konpentsazioa		Kapitala		Ustiaketa		
	EJ	BFA	EJ	BFA	EJ	BFA	EJ	BFA	
1990.....	-	60	-	-	-	-	-	2	62
1991.....	-	-	-	-	-	-	-	56	56
1992.....	-	-	-	-	-	92	-	50	142
1993.....	20	(20)	-	22	67	60	-	47	196
1994.....	-	-	-	-	453	360	-	48	861
1995.....	-	-	17	53	140	153	-	-	363
1996.....	-	-	25	49	-	20	-	-	94
1997.....	-	-	29	57	6	13	-	-	105
1998.....	-	-	32	63	-	12	-	-	107
1999.....	-	-	33	66	9	23	1	-	132
2000-2001	-	-	21	41	-	-	-	-	(*) 62
GUZTIRA	20	40	157	351	675	733	1	203	2.180

(*) Galerak konpentsatzeko ekarpenek likidazio prozesuaren azken itzulketa barne hartzen dute, 13 milioi pezetako zenbatekoarekin.



Miloi pta.





IV INBERTSIOAK ETA GASTUAK

Sozietateak eskuratutako dirufondoak behin-betiko proiektua kontratatzeke eta horren beste kontratazio osagarri batzuetarako erabili ditu, baita egin dituen gastu arruntetarako ere, ondotik azaldu den moduan:

KONTZEPTUA	Milioi pezeta	
	Zenbatekoa	
Inbertsio ezmaterialak	1.430	
Geltoki Intermodalaren Proiektua	1.229	
Bestelako azterlan eta proiektuak	201	
Inbertsio materialak	43	
Aretoak egokitzea, altzariak eta beste	43	
Gastu arruntak	741	
Langile gastuak	329	
Publizitatea	88	
Bestelako gastuak (amortizaziorik gabe)	324	
GUZTIRA	2.214	

Ondoren, inbertsioek eta gastu arruntek denboran izan duten banaketa zehaztuko dugu:

URTEA	Milioi pezeta						GUZTIRA
	Inbertsioak			Gastu arruntak			
	Higiez.ezmat.		Higiezindu	Langilegoa	Publizitatea	Bestelako gastuak	
Proiektua	Azterlanak	materiala					
1990.....	-	9	31	10	1	11	62
1991.....	-	30	2	25	2	13	72
1992.....	-	80	-	27	7	20	134
1993.....	60	10	-	28	4	17	119
1994.....	680	12	1	29	4	20	746
1995.....	300	10	2	30	8	40	390
1996.....	120	21	1	32	18	33	225
1997.....	40	18	1	35	7	45	146
1998.....	-	7	(*) 5	36	13	47	108
1999.....	29	4	-	41	24	35	133
2000/01.....	-	-	-	36	-	43	79
GUZTIRA	1.229	201	43	329	88	324	2.214

(*) Egoera Balantzean higiezindu ezmateriallean jaso diren 2 milioi pezeta barne hartzen ditu.



Atal hauetan jaso ditugun kontzeptu nagusiak honako hauek dira:

Inbertsio ezmaterialak

1.- Abandoko Geltoki Intermodalaren behin-betiko proiektua

1993ko urrian Sozietateak 1.200 milioi pezetako zerbitzu kontratu bat izenpetu zuen Michael Wilford & Partners, Ltd. enpresarekin behin-betiko proiektua idazteko; proiektuak aurreikusitako jarduera hauek besarkatu zituen:

Xehekapen maila	
Aurretiazko azterlana	ETren geltoki zaharra.
Aurreproiektua berraztertzea	Aurrealdeko eraikina, oinezkoen zubia, bulego gunea, bulego blokeak, hotela eta Posta bulegoen eraikina.
Oinarrizko proiektua berraztert.	Etxebizitza sailak.
Exekuzio proiektua	Autobus geltokia, ET eta RENFEren geltoki berria, RENFEko bulegoen zahar-berritzea, RENFEko etxebizitzaren etxabeen tratamendua, RENFE eta autobusen arteko merkataritza zabalgunea, aldaketetarako kubo makurra, lorategi estalkia, aparkalekuak, gurpildunen bide zeharkakoa eta zerbitzuko inguruko eraztuna.

1999an lan osagarrietatik eratorritako ordainsariak likidatu ziren, 1997an sortutakoak, 29 milioi pezetako zenbatekoarekin.

2.- Proiektuaren beste kontratazio osagarri batzuk

Halaber, Sozietateak azterlan eta zerbitzu teknikoa emateko hainbat kontratu izenpetu zituen; baita, Deurbe, SLren aldetik aholkularitza jarraitua ere, ondoan ikus daitekeen moduan:

Kontzeptua	Entitatea	Urtea	Milioi pezeta
1987ko proiektua gaurkotu eta beste	Deurbe, SL	1990/99	96
Geltokiaren bideragarritasun azterlana	MECSA	1991	8
Merkatuaren azterlana	Price&Waterhouse	1991	7
Geroko Geltokiaren aurretiazko azterlana ...	Stirling&Wilford	1992	54
Bideragarritas. eta merkatuaren azterlana ...	AB Asesores	1996/97	25
Bestelako txikiak			11
GUZTIRA			201



Inbertsio materialak

Bilboko Lersundi kalean alokatutako aretoa (410 m²) hobetu egin zen, beste hainbat gairekin ekipatu eta ondotik adierazitako moduan jantzi:

	Miloi pta.
Azalpena	Zenbatekoa
Alokatutako aretoak egokitzea (argiteria, soinua eta telef.) ..	4
Manparak, moketa, gortinak, apalak, etab..	13
Altzariak	12
Bulego ekipoak	4
Informatika ekipoak	8
Software: ingelerako multimedia ikastaroak	2
GUZTIRA	43

Inbertsioen norakoa

2000ko Akziodunen Batzorde Nagusiaren erabakiaren arabera, Sozietatearen ondasun material eta ezmaterialak (proiektua), doan, BFaren Herrilan eta Garraioen Sailera aldatu dira.

Gastu arruntak

1. Langile gastuak

Enpresaren batez besteko plantila 5 pertsonakoa izan da, aldi horretan zehar aldaketa adierazgarririk gertatu ez dela. Identifikazio funtzionala eta ordainsariak ondotik adierazten diren hauek dira:

LANPOSTUA	Alta data	1998ko ordainsaria(*)
Zuzendari kudeatzailea	90eko apirila	9,2
Arkitektoa	90eko urria	6,9
Zuzendaritzako idazkaria	90eko uztaila	5,7
Administrari kontularia	90eko urria	4,7
Administrari laguntzailea	90eko iraila	2,9
GUZTIRA		29,4

(*) 1998ko ordainsaria adierazten da, 1999 eta 2000koek kontratua etetzeagatik kalteordainak barne hartzen baitituzte.



Ondoren, soldaten kostuak zehaztuko ditugu:

Milioi pta.			
URTEA	Ordainsariak	Giz. Segur.	Guztira
1990.....	8	2	10
1991.....	20	5	25
1992.....	22	5	27
1993.....	23	5	28
1994.....	23	6	29
1995.....	24	6	30
1996.....	26	6	32
1997.....	28	7	35
1998.....	29	7	36
1999.....	32	9	41
2000.....	32	4	36
GUZTIRA	267	62	329

1996, 1997 eta 1998ko urteetan ordainsarien igoerak hainbat lanpostutan, BFAk oniritzitakoak baino altuagoak izan ziren, itxura batean, homologazio eta lanpostuen baloraketa aldatetek eraginda. Azterketa egin genuen garaian Sozietatearen artxibategiek zuten egoerak informazio hori agiri bidez egiaztatzea eragotzi zuen. V. atalean adierazia dagoen moduan bi langileri baja eman zitzaizen 99.12.10ean eta gainerako hiruei 00.6.30ean.

2. Publizitatea eta beste hainbat gastu

Gainerako gastuen xehekapena honako hau da:

Milioi pta.	
KONTZEPTUA	Zenbatekoa
Publizitatea eta propaganda	88
Beste gastu batzuk:	324
Alokairua eta komunitate gastuak: Lertxundi k/an 410 m ² ko aretoa	93
Bidai gastuak eta bazkariak.....	58
Aparteko gastuak BEZ, ez kenkaria, batik bat).....	43
Bulegoaren segurtasun zerbitzua	22
Konponketak eta bulegoko ekipoen mantenimendua	18
Telefonoa, mezularitza eta posta	14
Bulegoa garbitzeko zerbitzua.....	9
Bulegoko materialea eta fotokopiak	7
Likidatzailearen ordains.: hileroko 10 ordainag. eta azken ordaink. (1,5)	7
Lege aholkulariak.....	6
Bulegoan argi eta uraren horniketa.....	3
Interesak eta banku komisioak.....	3
Aseguruak	2
Zergak (Jarduera ekonomikoak, batik bat).....	2
Langileria hautatzeko aholkularitza 1990ean.....	2
Hainbat gastu	34
Beste txikiago batzuk	1
GUZTIRA	412



Publizitate gastuak proiektua ezagutarazteko egindako hainbat ekintzari dagozkio: prentsa iragarkiak, Cannesen azoka batera joatea, Bilbon egindako azoka batean standa jartzea, Rekalde aretoan maketa eta planoen erakusketa antolatzea, folleto eta audiobisualak, etab.

Bidaien kontusailean, kontzeptu nagusien modura hauek barne hartu dira: Sustapen Ministerioarekin bilerak izateko bidaiak; Stirling & Wildford enpresarekin bidaiak izateko Londresera bidaiak, proiektua azaltzeko azoketara bidaiak (Cannes eta beste), jatetxeetako ordainagiriak, etab.

Hainbat gasturen kontuak beste kontuetan tokirik ez duten gastu mota guztiak besarkatzen ditu: kontsumigarriak eta software informatiko txikia, ordezkartza gastuak, biltegitratze kostuak eta maketen garraioa, etab.



V. SOZIETATEAREN LIKIDAZIOA

1999an likidazio prozesuari ekin zitzaion, abenduan gerentea eta bere idazkaria kargu gabetu ondoren, 3, 7 eta 0,3 milioi pezetako kalteordain kostuarekin, urte horretako gastu modura erregistratu zirenak. 2000ko maiatzean Batzorde Nagusiak Sozietatea formalki desegiteko erabakia hartu zuen, likidatzaile bat izendatuz eta gainerako hiru lan kontratuak 00.06.30eko ondorioekin amaituz. Ondoko taulan 2000ko urtarrilaren 1etik 2001eko azaroaren 14ra bitartean egindako gastu nagusiak zehaztu ditugu, data honetan osatu baitzen sozietatearen likidazioa:

GASTUEN XEHEKAPENA 2000 eta 2001	Milioi pta.
KONTZEPTUA	Zenbatekoa
00.6.30era arte 3 langileren ordainsariak	8
4 langileren kalteordainak eta soldatak tramitatzea (*).....	24
Gizarte segurantzza.....	4
Langile gastuak guztira	36
Aretoen alokairua eta komunitate gastuak (**).....	11
Likidatzailearen ordainsariak	7
Bestelako likidazio gastuak: notarioa, publizitatea, etab.	2
99.12.31n kobratzeko BEZ zuzentzea (***)	17
Beste txikiagoak.....	7
GASTUAK GUZTIRA	80

(*) Kalteordaina jaso dute (kontratu-urte bakoitzeko 45 egun) jarduneko 3 langileek eta eszedentzia egoeran zegoen beste batek.

(**) Alokairu kontratuak indarraldia 2001eko martxora arte zuen, baina 00.10.30ean eten zen, jarritako fidantza galduz (1,3 milioi pezeta).

(***) Sozietateak kengarritzat hartu du 1999ra arte eutsitako BEZ; interpretazio honi, ordea, uko egin dio Foru Ogasunak eta honenbestez, saldoa erregularizatu egin da.

VI. SOZIETATEAREN KONTUAK

Sozietateak sortu zenez geroztik desegin arte aurkeztutako kontuak, Epaitegi honek urtero auditatu eta fiskalizatu dituenak, honako hauek izan dira:

VI.1 EGOERAREN BALANTZEAK

							Milioi pta.
KONTZEPTUA	1990	1991	1992	1993	1994	1995	
Higiezindu materiala	31	33	33	33	34	36	
Higiezindu ezmateriala	9	39	119	189	881	1.191	
Higiezinduaren amortizazioa	(2)	(15)	(32)	(82)	(139)	(186)	
Finantza higiezindua	1	1	1	1	1	1	
Aktibo ibilkorra	25	13	15	83	217	190	
AKTIBOA GUZTIRA	64	71	136	224	994	1.232	
Kapitala	60	60	60	60	60	60	
Galerak konpentsatzeko aportazioa.....	-	-	-	22	22	70	
Pilatutako emaitzak	-	(19)	(15)	(27)	(41)	(*) (34)	
Urtearen emaitza.....	(19)	4	(12)	(14)	(15)	(78)	
Kapital dirulaguntzak	-	-	85	176	947	1.201	
Hartzekodunak epe motzera	23	26	18	7	21	13	
PASIBOA GUZTIRA	64	71	136	224	994	1.232	

						Milioi pta.
KONTZEPTUA	1996	1997	1998	1999	2001-Mai.	
Higiezindu materiala	37	34	37	37	-	
Higiezindu ezmateriala	1.332	1.390	1.399	1.432	-	
Higiezinduaren amortizazioa	(209)	(224)	(236)	(240)	-	
Finantza higiezindua	1	1	1	1	-	
Aktibo ibilkorra	62	50	58	94	14	
AKTIBOA GUZTIRA	1.223	1.251	1.259	1.324	14	
Kapitala	60	60	60	60	60	
Galerak konpentsatzeko aportazioa.....	144	230	325	424	499	
Pilatutako emaitzak	(112)	(188)	(274)	(369)	(468)	
Urtearen emaitza.....	(77)	(86)	(95)	(99)	(78)	
Kapital dirulaguntzak	1.200	1.200	1.200	1.229	-	
Hartzekodunak epe motzera	8	35	43	79	1	
PASIBOA GUZTIRA	1.223	1.251	1.259	1.324	14	

(*) 1995ean galerak konpentsatzeko 1993an egindako 22 milioi pezetako ekarpena birsailkatu zen pilatutako emaitzara aldatuz.



VI.2 EMAITZEN KONTUAK

							Miloi pta.
KONTZEPTUA	1990	1991	1992	1993	1994	1995	
Ustiaketa dirulaguntzak.....	2	56	50	47	48	-	
Ustiaketara aldatutako kapital dirulaguntzak	-	-	7	36	42	39	
Finantza sarrerak	2	1	1	2	5	7	
Bestelako sarrerak	-	-	-	1	-	2	
DIRU-SARRERAK GUZTIRA	4	57	58	86	95	48	
Langile gastuak	10	25	27	28	29	30	
Kanpoko zerbitzuak	11	14	25	21	23	48	
Bestelako gastuak	-	1	1	1	1	1	
Amortizazioa.....	2	13	17	50	57	47	
GASTUAK GUZTIRA	23	53	70	100	110	126	
URTEALDIAREN EMAITZA	(19)	4	(12)	(14)	(15)	(78)	

						Miloi pta.
KONTZEPTUA	1996	1997	1998	1999	2000-01(*)	
Ustiaketa dirulaguntzak.....	-	-	-	1	-	
Ustiaketara aldatutako kapital dirulaguntzak	21	19	12	3	-	
Finantza sarrerak	9	2	-	-	1	
Bestelako sarrerak	-	-	-	-	1	
DIRU-SARRERAK GUZTIRA	30	21	12	4	2	
Langile gastuak	32	35	36	41	36	
Kanpoko zerbitzuak	51	42	45	59	26	
Bestelako gastuak	-	11	14	-	18	
Amortizazioa.....	24	19	12	4	-	
GASTUAK GUZTIRA	107	107	107	104	80	
URTEALDIAREN EMAITZA	(77)	(86)	(95)	(99)	(78)	

(*) 2000 eta 2001ean -Sozietatea desegin zen urteetan- egindako eragiketak. Emaizen kontua eskuratzeko 2000ko urteko kontuak eta ondoren likidatzaileak egindako likidazioak hartu dira abiaburu.

INTRODUCCIÓN

Este trabajo sobre la sociedad pública foral Estación Intermodal de Abando, Gestión del Proyecto, S.A. -GESPROSA, actualmente liquidada, ha sido incluido en el programa de trabajo del Tribunal Vasco de Cuentas a petición del Parlamento Vasco. Nuestra revisión tiene un doble objeto:

- Realizar un análisis económico y de gestión de la actividad de la Sociedad, detallando los costes incurridos durante su existencia y computando la totalidad de fondos públicos gestionados por la Sociedad.
- Verificar el cumplimiento de la normativa vigente en los procesos de contratación de bienes y servicios, comprobando la aplicación de principios de publicidad y concurrencia. En los procesos selectivos de personal analizaremos si se aplican principios de igualdad, mérito y capacidad.

El proyecto de la Estación Intermodal nace con el objetivo de centralizar las diversas terminales de autobuses diseminadas por la ciudad, facilitando su ubicación en Abando la intermodalidad con otros medios de transporte: ferrocarril, taxi y metro.

Para ello, la Diputación Foral de Bizkaia suscribió diferentes contratos durante los años 1985 y 1987, para la realización del anteproyecto y proyecto básico de la Estación Intermodal. El 17 de mayo de 1990, transcurridos por tanto tres años desde la finalización del proyecto básico, la Diputación Foral de Bizkaia constituyó la sociedad pública Foral GESPROSA con el siguiente objeto social: "la realización de cuantas gestiones y actuaciones sean precisas para la definición, información, tramitación, promoción y, en definitiva, ultimación del Proyecto de construcción de la Estación Intermodal de Abando por parte del Ayuntamiento de Bilbao, la Diputación Foral de Bizkaia y el Gobierno Vasco". En 1993 se incorporó al accionariado con un 33,3% el Gobierno Vasco. Con fecha 14 de octubre de 1999, la Junta General de Accionistas acordó iniciar el proceso de disolución de la Sociedad, que se ultimó en el ejercicio 2001.

I. CONCLUSIONES

I.1 LIMITACIONES AL ALCANCE

